

Kontseilari Orokorra

2017ko otsailaren 1.

Salletar maiteok:

Alexandrian orain gutxi ospatutako RELEM-eko Anai Ikuslarien Konferentziaren bilerak hartu zuen erabakia jarraituz, gustura zabaltzen dut Lehen Eskualdeko Salletar Hezkuntza Misiorako Asanbladaren deia (SHM-MEL). Asanblada hau Erroman 2018ko urriaren 14tik 20ra ospatuko da.

RELEM Eskualdean Salletar misioa etorkizunera eraman nahian, Asanbladak ondoko helburu hauek izango ditu:

1. Etorkizunerako Salletar misio antolaketan egitura berriak sortzea
2. Eskualdean Salletar balio, portaera (*ethos*) eta ondarean formazioa sustatzea
3. Eskualdean gure erakunde eta egituretan Salletar identitatea sustatzea

Nahiz eta Asanbladaren hasiera data oraindik urruti izan, emaitza onak lortzeko berehalako prestaketei ekin behar zaie. RELEM Taldeari hasierako prestaketa dagokio RELEM SHM/MEL Taldearekin batera, zeinean aurkitzen den Eskualdeko Barruti edo Delegazio guztietako SHM/MEL koordinatzailea. SHM/MEL koordinatzaileak, Anai Ikuslariekin batera, arduratuko dira Barruti/Delegazioetako parte-hartzaileak izendatzen 2017ko maiatza amaitu baino lehenago. Horrela lantaldeak osatzea posible izango da eta Asanbladarako prestaketen hurrengo etapa erraztuko da.

Hurrengo hilabeteetan MEL/SHM koordinatzaileen bidez informazio gehiago zabalduko da berri emanek nola Barruti/Delegazioak inplikatu diren prozesuan. Orain Eskualdean zehar Salletar misioan erronka erabakigarriari aurre egin behar diegunez gero, behar beharrezkoa da Barruti/Delegazioetako parte-hartzaileak prestatuta izatea prozesuaren etapa guztietan, Eskualdeko Salletar misioaren jasangarritasuna ziurtatzeko egitura eraginkorrak bilatzen ari garen bitartean.

Aldez aurretik mila esker zure lankidetzagatik,



Anai Aidan Kilty (RELEM-erako Kontseilari Orokorra)